

Ziba-dantza

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Modak agintzen zuen orduan ere. Nobedadeak tantaka-tantaka hasten ziren azaltzen patioan, ia beti erosotasun ekonomiko handiena zuten gurasoen haurren eskutik. Gero, aste pare bateko kontua izaten zen herriko dendetan modako jostailua edo sasi-jostailua mostradorean ikusgai izatea. Horrela bete zizkiguten eskuak eta apalategiak, kanikek, eskuekin katramilatze gomek, kromoek, tazoek, zibek. Batzuek ez zuten lanik eskatzen. Beste batzuek, ordea, dedikazioa eskatzen zuten gozatuko baldin bazenituen; den-

bora, saiakera, pazientzian trebatzea. Nolabait, ezinbestekoa zen jostailuak eta zuk elkar ondo ezagutzea: zuk haren bihurguneak eta hark zure eskua. Urteak pasatu ditut zibarik hartu gabe. Baina, joskintzan nola, jostailugintzan hala itzultzen dira tendentziak, patroiak ezer gutxi aldatuta, eta haurraren ziba hartu nuen lehengoan, esperantza gutxirekin. Soka hartu, ziba zein norabidetan inguratu behar ote den pentsatu, kiribildu, lotu, bota... eta dantzatu zen. Zenbat eta gehiago altxatu besoa eta soka, zenbat eta gehiago urrundu zibagan-

dik, orduan eta dotoreagoa zen bere bira-dantza. Pentsatu nuen horrelakoak behar luketela laguntasun guztiak, horrelakoak direla maitasun onenak: elkarren onena eta txarrena ezagutu, elkarrekin gozatu, komeni den distantzia hartu, eta hurrengo enkontruan denbora horren guztiaren zentzua eraitsi, dantza bakarrean. Baditut ziba-lagunak, eta zorte neurri-gabekoa da horretaz jabetzea; haiekin dantza eta bira eta salto eta barre eta negar eta berriz dantza egiteko habia bat betirako izango duzula sentitzea, denbora pasatuko ez balitz bezala. •

Pertsonen ehiza ilegala

Miren AZKARATE
BADIOLA

Inor ez da ilegala” kamisetak eza-gun egin ziren gurean orain urte batzuk. Inor ez da ilegala esaldia, zoritxarrez, ez da modaz pasatzen, beraz, berdin du noiz irakurtzen duzun hau. Inor ez da ilegala, Euskal Herria zaititzen duten hegoaldea eta iparraldea zeharkatu nahi duten pertsonengatik sortu zen leloa da. Bidasoa ibaia batetik bestera libreki ibiltzeko ahalmen ezak eragiten duen bizipenengatik sortu zen lelo bat da. Inor ez da ilegala, haurrei azaldu eta ulertzen duten kontzeptua da, baina helduen munduan gezurra galanta den zerbait da.

Azken astetan Ameriketako Estatu Batuetan ikusten ari garen ehiza dela eta, begiak zabal-zabal ditut, ezin ulertu, ezin liseritu eta ezin azaldu nola den posible XXI. mendean horrelakoak gertatzea. Ehiza hitza erabili dut animaliak bailiran doazelako poliziak haien lurretan legalki ez daudenen bila, paperik gabe dauden herritarren atzetik. Berdin zaie zein momentutan; haurren bila eskolara doazenean, kaleretik paseoan dabiltzanean, etxean lasai daudenean... Zu eta ni bezalako pertsonak dira. Hor, animalia bakarrek, polizia horiek dira.

Izua sortzen didate irudiok; haurrak amengandik bortxaz bereizten, haurrak kalean katxeatuak izaten, haurren ospakizunetan polizia andana sartu eta jendea atxilotzen deportatuak izateko, familia osoak korrika poliziarengandik ihesi... Eta hau dena munduko beste herrialde batean jaio eta dena delakoagatik beste herrialde batera joateagatik bizitzera eta lan egitera. Pertsona batek inoiz ezin du ilegala izan, ilegala batzuek besteen aurka erabiltzen duten biolentzia da, estatu agintariek herritarren aurka erabiltzen dutena, kasu honetan. •